



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

2016-2017

PAUXA

EGILEA: OIHANE ZUNZUNEGI MADINABEITIA

ZUZENDARIA: AINARA MIGUEL SÁEZ DE URABAIN

2017ko maiatzaren 31

PAUXA

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

PAUXA

Oihane Zunzunegi

Laburpena:

Pauxa argazki-proiektua ikusezina dena erretratatzean datza pertsona itsu baten pertzepzio eta sentsazioaren ikuspuntutik, argazki eta istorio multzoa osatuz. Hala, itsu batek mundua zelan antzematen duen ezagutzeko, lehenik irudien sormenaren jatorria ikertu eta horiek zelan eraikitzen diren aztertu da. Ondoren errutinatik kanpo estimulu berriak bilatzeko, bidai bat burutu da eta bidai horren memoria argazkietan islatu da. Alde batetik, une jakin bateko testuingurua erretratatuz eta bestetik, momentu horretan pertsona itsu batek antzematen zuenaren errepresentazioa eginez. Era berean, argazkilariak argazkigintza begiratzea soilik ez dela ikasterakoan, hau da, usaintzea, ukitzea, entzutea, sentitzea.. ere argazki baten parte dela antzematerakoan, zentzumenei berebiziko garrantzia eman die entzumena, ukimena, usaimena eta baita sentimena ere proiektuari gaineratuz.

Hitz gakoak: argazkilaritza, itsutasuna, pertzepzioa, irudi mentalak, zentzumenak

PAUXA

Resumen:

El proyecto fotográfico *Pauxa* trata de fotografiar lo invisible desde la percepción y las sensaciones de una persona ciega creando un conjunto de imágenes e historias. Así pues, para conocer cómo una persona ciega percibe el mundo, lo primero de todo, se estudió el origen y la construcción de las imágenes. Después, se realizó un viaje para buscar nuevos estímulos fuera de la rutina y se hizo una memoria fotográfica de ese viaje. Por un lado, se fotografió el contexto de un momento determinado y por otro, trato de representarse lo que una persona ciega podía percibir en ese mismo instante. Al mismo tiempo, al aprender que fotografiar no es solo mirar, si no que es también oler, tocar, escuchar, sentir... se ha querido dar suma importancia al resto de sentidos, el tacto, el olfato, el oído.. incluso el sentimiento, incluyéndolos en el proyecto.

Palabras clave: fotografía, ceguera, percepción, imágenes mentales, sentidos

Abstract:

The photo project *Pauxa* tries to picture the invisible from the perception and feelings of a blind person, thus creating a group of images and stories. Therefore, to know how a blind person perceives the world, first of all, the source and construction of the images were studied. Then, a trip was taken, in order to look for new stimuli far from everyday routine, and a photographic memory of that trip was also made. On the one hand, the context of a given moment was photographed; on the other hand, there was the representation of what a blind person could feel at that very moment. At the same time, while learning that taking pictures is not only about seeing but also about smelling, touching, feeling...the rest of the senses have been given great importance: touch, smell, hearing,... even feeling have been included in the project.

Key words: photography, blindness, perception, mental images, senses

AURKIBIDEA

1.SARRERA	6
2.AZALPEN MEMORIA	9
2.1 IDEIAREN JATORRIA	9
2.2 LANAREN INTERESA.....	15
2.3 TESTUINGURUA.....	19
3.IKUS-ENTZUNEZKO ERREFERENTZIAK	22
4.ONDORIOAK	37
5.LAN KRONOGRAMA.....	38
BIBLIOGRAFIA.....	42
1. ERANSKINA	45
2.ERANSKINA	46
3.ERANSKINA	47
4.ERANSKINA	48
5.ERANSKINA	49
6.ERANSKINA	50
7.ERANSKINA	51
8.ERANSKINA	52
9.ERANSKINA	53

1. SARRERA

Pauxa argazki-proiektua ikusezina dena erretratatzeko datza pertsona itsu baten pertzepzio eta sententzioaren ikuspuntutik, argazki eta istorio multzoa osatuz.

Ikusmena erabiltzen dudana zentzumenerik nagusienetarikoa izanik, pertsona itsu batek mundua zelan antzematen duen ezagutzeko grina piztu zitzaidala, Ali Carreño tximeleta erdia sentitzen den 37 urteko emakume bermeotarrarekin topo egin nuen. Ordutik aurrera, argi zegoen proiektua aurrera eraman behar zuela.

Lana 15 argazki sekuentziaz osaturik dago, zeinetan eszena berdina baten bi pertzepzio ezberdina islatuko diren, alde batetik, une jakin bateko testuingurua erretratatu eta, bestetik, momentu horretan pertsona itsu batek antzeman zezakeenaren errepresentazioa eginez.

Proiektuak Ali Carreño bermeotarrak jarraitzen duen errutinarekin apurtuko du, testuinguru berri batean murgilduz, esperientzia eta estimulu berri kontrolaezinak azalazteko: Nepalerrako bidaiaria, apirilaren 11tik 24ra iraungo duen denboran eten bat izango da, argazkiak ateratzerakoan momentuak izozten diren antzera. Leku hura hautatzeak bere arrazoiak izan ditu: izan ere, bigarren aldian izango da bai argazkilariak bai modeloak leku honetara bidaiatzen dutena. Eta lekuarekiko konexio berezi bat sentitzearen ondorioz erabaki dut bertako memoria erretratatzeko.

Ikustea zer da? Galderaren inguruan hainbat ikerketa egin ondoren, adimena ikusmenaren benetako instrumentua dela ikasi nuen. Bertan sortutako irudi mentalak ikusmenetik eratorritako datu sententzioez eta ukimenetik datozen oroitzapenez osatuak daude. Beraz, oroitzapenen eta pertzepzio sententzionalen bitartez irudiak sor daitezke.

Baina, argazkilari batek ikusmena erabili behar al du argazkiak egin edota irudi mentalak sortzerako orduan? Lehenik eta behin, jakin beharra dago, argazki bat ateratzea ez dela soilik begiratzea, baizik eta sentitzea. Argazki bat ateratzerako orduan, zentzumeneri guztiak adi jarri behar dira: entzumena, ukimena, dastamena, usaimena eta ikusmena. Izan ere, argazki batek ez du transmititzen polita izateagatik baizik eta mezu bat botatzen duelako ziztada erantzera ziztatu arte. Horregatik, proiektuan berebiziko garrantzia eman zaie zentzumeneri, ikusmena argazkietan landuz, entzumena argazki bakoitza egiteko momentuan

PAUXA

erregistratutako giro-soinu eta modeloaren hitzak sartuz, ukimena modeloaren hitzetan oinarritutako braillez idatzitako haikuak (Japoniar poemak) oroitzapenen-bilduma batean idatziz eta, azkenik, usaimena, sortutako oroitzapenen bilduma Nepaleko intsentsuaren usaina izango du.

Horretarako, bizi garen digitalizazio aro berri hau ezinbestekoa bilakatu denez, lana bere osotasunean webgune batean burutu dut, transmedia eta interaktibitatea sustatuz. Hala ere, lehen esan bezala ukimena eta usaimena landu ahal izateko, argazki-bilduma baten ordez, oroitzapen-bilduma bat sortzea bururatu zitzaidan proiektuko haikuekin. Hala, Ali Carreñok modu fisikoan edukiko luke ere bidai horretako oroimena.

Hori dela eta, Ali Carreñoren ikuspuntutik ateratako argazkiak egin eta, bere pertzepziara gehiago hurbiltzeko, bere orain arteko bizitzako etapetan oinarrituz honako ezaugarriak dituzten irudiak sortu dira: lehen plano eta plano ertainak, hauteman ezin zezakeena desagerrarazi, distirak, lauso efektua eta mugimendua. Hortaz, ezinbestekoak izan dira surrealismotik eratorritako iturri eta inspirazioak, hala nola, Eugene Atget, Evgen Bavcar, Pete Eckert, Silvia Grav eta beste hainbat.

Pauxa proiektuaren helburu nagusiak, azken finean, honako hauek izan dira: ikusten dutenei itsuen errealitateari hurbiltzeko aukera ematea, itsutasunaren inguruan existitzen diren aurreiritziei aurre egitea, irudien sormenari buruz hausnartzea, zentzumenei duten garrantzia ematea eta bizitza baloratzea izan da.

Argazkiak egiteko erabilitako ekipoa honako hau izan da:

-Kamera digitala (Canon 1100D)

-Lentea (18-200mm Tamron)

-Lauso efektua lortzeko baselina produktua

-Bi filtro:

-UV filtroa lentea babesteko

-G-Blue filtroa, Ali Carreñoren kolorerik gustukoena urdina izanda eta itsasoa faltan gehien botatzen duena dela kontuan hartuta, argazkiei gaineratuko zaien efektu urdinaren arrazoia

PAUXA

Azkenik, zergaitik Pauxa?

Pauxa, pinpilinpauxaren erdia delako
eta aldi berean, pausa izanda denboran eten bat delako

Webgunea (linka koptatu eta Interneten itsatsi)

Pasahitza: tximeleta

<https://pauxaproiektua.wixsite.com/oihanezunzunegi>

2. AZALPEN MEMORIA

2.1 IDEIAREN JATORRIA

Pauxa proiektua aurkikuntza baten bidaiaria da, zeinetan pertsona itsu baten pertzepzio eta sentsazioak argazki multzo batean interpretatu nahi diren.

Hainbeste jende bizi da munduan eta hain dira ezezagunak niretzako unibertso horiek, ikusmena erabiltzen dudana zentzumen nagusienetarikoa izanik, pertsona itsu batek mundua zelan antzematen duen ezagutzeko grina piztu zitzaidala, Ali Carreño 37 urteko emakume bermeotarrarekin topo egin nuen. Orduetik aurrera, argi zegoen proiektua aurrera eramane behar nuela. Gainera, argazkigintzan "ikus" daitekeenaren eta "ikusezina" denaren arteko joko bat sortzea interesgarria iruditu zitzaidan.

Pauxa. Zergatik pauxa?

Pauxa pinpilinpauxaren erdia delako.

Pauxa, aldi berean pausa izanda denboran etene bat delako.



Pinpilinpauxa erdiaren ideia, Ali Carreño tximeleta bat izan nahiko lukeelako da, bere hitzetan animalia askea eta koloretsua delako. Baina, nirekin marrazkiak egin zituen lehenengo aldian zuhaitza, eguzkia, etxea eta azkenik tximeleta bat irudikatu ondoren azkenengo horri ezkerreko hegoa falta zitzaiola ikusi nuen. Inolako garrantzirik eman gabe, egunak geroago egindako marrazkietan tximeleta bat bere osotasunean ezin bukatu sumatu zuenean, zera esan zuen: "Uste dut ezkerreko hegoa marraztea ezinezkoa egiten zaidala, tximeletaren erdia sentitzen naizelako, hego urratu bat daukat, ez naiz guztiz perfektua".

Pausaren ideia, errutinatik kanpo dagoen bidaiaria bat egiten delako da, denboran etene bat, pausa bat. Bidaiaria izen bat dauka: Nepal. Ali Carreñok lurralde hau paper batean marrazterakoan eguzki erraldoi bat egin zuen, Nepal bere hitzetan argia delako, pertzepzio askoz puruagoa eta hutsagoa senti dezalako han. Gainera, pausa

PAUXA

hitza ere argazkigintzarekin erlazionatuta dago. Izan ere, Roland Barthes filosofoaren ustez, "argazkigintzak denboraren etenaldi edo perturbazio bat jasotzen du (...) izan zenaren irudikapen bat hartu eta betirako gordetzen du" (Barthes, 1989, 22,23 or.)¹.

Argazki proiektu hau, 15 argazki sekuentziaz osaturik dago, zeinetan eszena berdin baten bi pertzepzio ezberdin islatuko diren, alde batetik, une jakin bateko testuingurua erretrataturik eta, bestetik, momentu horretan Ali Carreñok antzeman zezakeenaren errepresentazioa eginez. Proiektuak Ali Carreño bermeotarrak jarraitzen duen errutinarekin apurtuko du, testuinguru berri batean murgilduz, esperientzia eta estimulu berri kontrolaezinak azalerazteko. Nepalen proiektua egitea ere ez da edonolako aukera bat izan; izan ere, bigarren aldia izango da bai argazkilariak bai modeloak leku honetara bidaiatzen dutena. Eta lekuarekiko konexio berezi bat sentitzearen ondorioz erabaki dut bertako memoria argazkietara eramatea.

Behin zeri eta nori aterako nizkion argazkiak pentsatzerakoan, gauza batez ohartu nintzen: Ali Carreñoren inguruko proiektu bat burutuko nuen baina ondoren berak ikus eta antzeman ezin lukeen proiektu bat izango litzateke. Bidegabekoa iruditu zitzaidan. Beraz, proiektua pertsona itsu guztiei eta bereziki berari hurbiltzea otu zitzaidan entzumena, ukimena eta sentimena jokoan sartuz. Entzumena, dagoen zentzumen garrantzitsuenetarikoa izanik, momentu bakoitzeko giro soinua erregistratu eta ondoren Ali Carreñok bere hitzekin istant horretako sententzioen deskribapenaren audioa grabatu nuen, gero lanean sartzeko.

Proiektuaren adierazkortasunari indar gehiago emateko, poemak egitea bururatu zitzaidan, modeloak kontaktari eta hitzei berebiziko garrantzia ematen baitie. Baina, haikuen existentziaz jakin ondoren horiek egitea zentzu handiagoa zeukala pentsatu nuen. Izan ere, haikuak, Japoniatik datozen poema laburrak, une jakin batean bizitakoa, usaindutakoa, ikusitakoa... biltzen dute era iradokitzaile batean.

Bestalde, bizi garen digitalizazio aro berri hau ezinbestekoa bilakatu denez, lana bere osotasunean modu digitalean egitea pentsatu dut. Horretarako, webgune interaktibo bat sortu dut, argazkiak ez ezik, haikuak eta batez ere soinuak gaineratzeko. Hala ere, ukimena lantzeko argazki-bilduma baten ordez, oroitzapenen-bilduma sortu dut proiektuko haikuak braille idazkera irakurtzeko

¹ Autoreak itzulita: "La fotografía se refiere al tiempo interrumpido, a la plasmación de lo que fue (...) Se conserva eternamente lo que fue su presencia, su presencia fugaz"

PAUXA

sisteman idatziz. Hala, Ali Carreñok modu fisikoan edukiko luke ere bidai horretako oroimena. Gainera, oroitzapenen bilduma hori Nepaleko intsentsuaren usaina izango du.

Hori dela eta, argazkilari moduan, lehenik atentzio gehien sortarazten zidan momentua erretratatzeko nuen eta ondoren, Ali Carreñori ia zer sentitzen zuen, zein zen bere une jakin horretako pertzepzioa galdetzen nion. Horrela, bere hitz, imajinario eta memoria bisualaren bitartez nire buruan irudi bat eraiki eta esparru fisikora eramaten nuen argazkian bihurtuz.

❖ Testuingurua

Argazki sekuentzia honen lehenengo osagaia instant baten testuinguruarekin hasiko da, argazkiaren momentuan kokatu ahal izateko.

Argazkiez aparte, testuinguruko argazki bakoitzean momentu jakin horretako giro-soinua entzuteko aukera egongo da, instant horretara bidaiatu ahal izateko. Webguneari erreferentzia eginez, testuinguruko argazki bakoitzera heltzerakoan, jarraian giro-soinua entzungo da, errealitatean nahita nahiez dauden soinuen antzera, eskatu barik paisaiaren parte direlako. Esaterako, pertsona batekin hitz egiterakoan horri hitz egitera behartzen diozu, aldiz, euria egiterakoan, inolako eskaerarik gabe, euriaren zarata entzuten duzu. Belarriak, begiak ez bezala, ezin dira itxi. Estali bai, baina itxi ez.

Gainera, Ali Carreñoren hitzekin deskribatutako momentu hura haiku bihurtuko da, bere sentsazio eta sentimenduak zeintzuk izan ziren iradokitzeko eta baita istorio edo esperientzia bat kontatzeko ere. Aurreikuspen bat egiten da.

Bestalde, Jean-François Lyotard filosofo frantsesaren postmodernismoaren ideia hona ekarriz errealitatea anitza da, bakoitzak berea baitauka, hau da, ez dago egia unibertsalik. Ez dago egia bat, dena interpretagarria eta guztiz subjektiboa da. Serge Tisseron psikoanalistak ideia hori indartu egiten du *El misterio de la cámara lúcida* idatzitako liburuan: "Mundua argazki baten parekoa dela pentsatzeak, ilusio bikoitza dakar munduarekiko dugun ideia irudiaren antzerakoa dela sinestean" (Tisseron, 2000, 18 or.)². Horregatik, begirada objektiboa baino, munduaren ikustea gogoratzeko argazki begirada kontzeptua erabiltzen da, "begiratzen


² Autoreak itzulita: "¡De hecho, la ilusión de que el mundo es semejante a su imagen fotografiada sostiene otra ilusión que consiste en creer que el mundo es semejante a la imagen que tenemos de él!"

PAUXA

duenaren pertsonalitate independentetzat hartuz" (*Ibid.*)³. Beraz, iritzi hauek kontuan hartuta sekuentzia hauetan nire pertzepzioaren errealitatearekiko hurbiltasun gehien duten argazkiak agertuko dira, ondoren postprodukzioan oinarritzko efektuak soilik sartuz: distira eta kontrastea.

❖ Ali Carreño - Subjektua/ Modeloa

Bigarren ikuspuntua Ali Carreñoren pertzepzioaren bidez egingo da. Bere bizitza bi mundutan ezberdindu da ikus eta ikusezinen artekoa, eta denboran ikustetik ez ikustera salto egiten ibili da.



Sei urte zituelarik, ezkerreko begia erauzi behar izan zioten tumore bat dela medio eta 11 urte bete zituenean, berriro ere arazo larri batean ikusi zuen bere bizitza. Bere aurrean zuen guztia puntu beltzez sumatzen hasi zen, bere erretinako zentroan puntu beltz handi bat ikusi arte. Berak aitortzen duen moduan "izkinetatik soilik ikusten nuen, lauso, inolako azalpen garbirik gabe". Beste tumore bat, bigarrena, behin behinekoa. Ikusteari utzi zion eta inolako gogorik gabe, braille hizkuntza erabili, bastoiarekin ibili eta berarentzat ezezaguna zen mundu horretara ohitzen ikasi zuen, onartu ez arren.

Hala ere, 15 edo 16 urterekin, bai irakasle bai ikasleen partetik tratatu txarrak jasan zituen, bere nerabezaroa amesgaizto bihurtuz. Hainbat tratamendu jaso ondoren, ikusmena berreskuratzearen ondorioz esperantza bat aurkitu zuen. Dena den, ikusgaitasuna ez zen guztiz argia, mugimenduak antzeman zitzakeen, zuri eta beltzaren arteko kontrasteak ezberdindu zezakeen, adibidez, zebra-bide batetik gurutzatzerako orduan. Baina esperantza lauso hori, bi hilabete soilik iraun zuen. 20 urte bete zituenean, iluntasuna bere bizitzaz jabetu zen, urdina bere kolorerik gustukoena izanik eta itsasoa bere nostalgjarik handiena bihurtuz.

Hona hemen Carreñoren hitzak:

³ Autoreak itzulita: "Para evocar una visión del mundo que se considera independiente de la personalidad del sujeto que mira"

-Eta orain, zer ikusten ari zara?

-Dena beltz eta koloretako argi distirekin ikusten dut, iluntasun osoa orban dirdirekin estalia, zeu denbora luze batez eguzkitara begira egongo bazina moduan. Hori da ikusten dudana, unibertso edota zulo beltz baten antzera. Zuk bisualki ulertzeko, hainbat foku zure inguruan izanda, begiak itsutzearen tankerako sentsazioa hurbiltzen da. Adibidez, zarata eta jende-samaldak erabat gorroto ditut. Zenbat eta burrunba handiago, geroz eta distira gehiago ikusten ditut nire buruan. Leku baketsuetan, aldiz, dirdira gutxiago sumatzen ditut. Beraz, nire gogo-aldartearen arabera ere, egoera aldatzen da.

-Orduan, zelan eraikitzen duzu irudi bat?

-Esan daiteke dena nahiko abstraktua dela, oso subjektiboa. Neu jaiotzaz itsua ez naizela kontuan hartuta, koloreak zeintzuk diren badakit, nolakoa den mahai bat, eserleku bat... baina ezer berriarekin topo egiten dudanean, hura ikasi egin behar dut, ezin dezaket irudikatu. Beraz, ez badut ukitzen existituko ez balitz bezala izango litzateke.

-Horrek esan nahi du, zeure buruan eraikitzen dituzun irudi gehienak nahita nahiez zeure haurtzaroko erreferentzietatik hartzen dituzula?

-Duda barik. Askok ez dituzte haurtzaroko memoriarik, oso gutxi, baina nire kasuan, aldaketa itzela izan zen. Neure bizitza baldintzatu zuen.

Aurreko guztia kontuan hartuta, itsutasunari normalean eransten zaion iluntasunetik urrundu eta argazkiak guztiz argitsuak izan behar zirela erabaki nuen. Izan ere, Ali Carreñorentzako Nepal argia da, argitasunez betea dago. Dena den, bere pertzepziara gehiago hurbiltzeko bere bizitza osoan zehar ikusi duenaren araberrako irudi berri bat eraiki behar nuen, errealitate berri bat sortu. Beraz honako ezaugarri hauek kontuan hartu nituen:

Lehenik, argazki gehienak xehetasun-plano, lehen-plano edo plano ertainak izan behar ziren. Modeloak bere oroimen bisualean irudiak txikitik handira eraikitzen baititu. Esaterako, aireportuko taberna baten geundela oinatzak entzuten zituen bere alboan. Horiek norabide berdinean eta konstantean geroz eta gehiago sumatu zituenean bere ondoan korridore bat zegoela antzeman zuen, baina tabernaren eta korridorearen artean banaketa bat zegoela nabaritu zezakeen, hutsa edo aire faltaz aparte, soinuaren jarioagatik. Honekin batera, argazkien atentzio osoa edo gehiena

PAUXA

irudiaren erdian fokuratu behar nuen, modeloaren oroimen bisualean, gaur egun, zentroak alboak baino leku gehiago hartzen baitu bere buruan.

Bigarrenik, hauteman ezin zezakeena desagerrarazi behar nuen. Hau da, istant bakoitzean antzeman ezin zuena post-produkzioan kendu edo ezabatu behar zen Photoshop-eko pintzelada erremintaren bitartez. Espazio batean dagoenean ukitzen edo entzuten ez duena, ez baita existitzen. Adibidez, loreontzi bat edota pertsona bat.

Hirugarrenik, etengabe momentu oro ikusten dituen distira horiek irudikatu behar nituen argazkietan. Zenbait pertsona itsuk, niretzako ezezagunak ziren elementuak ikusten dituztelako, forma geometrikoak, suziriak... Ali Carreñoren kasuan: puntu eta lerroz osatutako distirak. Horretarako, argazkigintza itsutasunarekin lotzea erabaki nuen eta antzina kamara analogikoen argazkiak errebelatzerako orduan ateratzen zituzten urradura eta hautsekin lotzea bururatu zitzaidan. Beraz, efektu hori lortzeko, post-produkzioan filtro berezi bat sartu nion *dust and scratches texture* (hauts eta urradurazko ehundura) deitua. Hala, filtro mota hori argazkietan gehiago edo gutxiago nabarmendu dut modeloaren sentsazioaren arabera, lasaitasunean distira gutxiago jarriz eta urduritasunean, estres edo ezinegonetan horiek areagotuz.



Laugarrenik, bere orain arteko bizitzako etapetan oinarrituz eta horietako bakoitza argazkietan islatuz, lau ezaugarri hartu ditut faseka. Bata, jaiotzaz pertsona itsua ez izanda eta koloreak ezagututa, argazkietan kolorea mantentzearen erabakia. Bestea, 11 urte zituenean errealtatea lauso ikusten zuela oinarri hartuta, lentinean argazkiak ateratzerako orduan jarritako baselina produktuaren bitartez, gandutsu efektu hori lortzea. Hirugarrena, nerabezaroan ikusten zituen mugimenduei garrantzia ematea, argazkiko objektu zein subjektuak bikoiztuz, bata bestearen gainean gardentasun ezberdinarekin jarriz eta horiek deformatuz, higidura sentsazio hori eskuratzeko. Eta azkenengoa, behin itsu geratu zenean ikusten dituen distirei erreferentzia egitea.

Azkenik, aipatutako efektu guzti horiei esker, kristal baten antzera jokatzen dute argazkiek. Pete Eckert argazkilariak kristal metafora hori ikusmen eta ikusgaitzen arteko zubi batekin alderatzen du bere webgunean: "Turista soil bat naiz ikusmena

PAUXA

dutenen munduan" (Eckert, 2017)⁴. Bere ustetan, itsuak diren pertsonak kristalezko ate bategatik bananduak daude ikusmena duten pertsonetik. Egiten ari direna "ikus" dezaketela esan nahi du horrek metaforikoki, baina mundu horretan sartzea ezinezkoa zaiela.

Bestalde, argazkiez gain, Ali Carreñoren pertzepzioko serie bakoitzean momentu jakin horretako sententzia hitzekin entzuteko aukera egongo da, instant horretan zelan sentitu zen jakin ahal izateko, ahotseko tonua, urduritasuna, emozioa, tristura etab. sumatuz. Kasu honetan, webguneari erreferentzia eginez, sentimenduak bakoitzaren barnean dauden sekretuak direnez, horiek estalgabetu nahi baldin badira ikusleak dagokion audioan klik egin beharko dio hura entzuteko.

Horrez gain, testuinguruko argazkian agertutako haikua, argazkilariaren ahotseko audio baten bitartez entzungo da modeloaren pertzepzioan, olatuen soinua eta Ali Carreñok txikitatik jotzen duen pianoaren musika gaineratuz (ordenagailuko robotak duen ahotsarekin ez entzuteko).

2.2 LANAREN INTERESA

Zenbait ikerketa deigarriren aburuz, minbizia eta hiesarekin batera itsu geratzea da jendeak duen beldurrik handiena.

Eta nik, nire buruari galdetzen diot.. Itsutasuna baino arrotzagoak diren beste gaixotasunak egon badaude, hala nola, gaixotasun neurologiko eta mentalak (alzheimerra, ELA, lupus, eskizofrenia) eta aldiz, ez ikusteak horiek baino beldur handiagoa ematen du. Baina itsutasuna ba al da gaixotasun bat? Ez. Itsutasuna ezgaitasun bat da. Adibidez, minbizia eta hiesarekin hil gaitezke baina itsutasunarekin? Baina itsuak izanda lasai asko bizi gaitezke.

Hori dela eta, sormenezko proiektu honen bost helburuak aipatuko dira, helburuek lanaren interesa azaltzea lortuko dutelakoaren itxaropenarekin.

1. Ikusten dutenei itsuen errealitateari hurbiltzeko aukera ematea:

Pertsona bakoitzaren bizitza eta ohiturak ezberdinak izan arren, itsuen errealitatea ezagutzeko Ali Carreñok bizitzarekiko duen pertzepzioa erretratatu nahi izan dut,

⁴ Autoreak itzulita: "I am only a tourist in the sighted world"

PAUXA

berak, bere itsutasunean, munduarekiko duen ikuspuntua ezagutu eta ulertu ahal izateko.

2. Itsutasunaren inguruko aurreiritziak burutik kentzea:

Ali Carreñok behin baino gehiagotan esan dit kaleko begiradak eta zurrumuruak bere gainean sentitzen dituela eta pertsonen aurreiritziak ezjakintasunean oinarrituta daudela, baita noizbait altuago hitz egin diotela ere gorra izango balitz moduan jokatzuz. Nire ustetan, askok itsuen errealitatea ezagutzen ez dutelako gertatzen da hori eta batzuetan ezjakintasunak beldurra sortzen du. Izan ere, nire esperientzian oinarrituta, gehienek jarrera ezberdin bat hartzen dute norbait ezgaitasun bat edukitzeagatik, nahigabe edo nahita errespetua faltatuz. Beraz, helburu honek denon artean berdintasunean bizitzea bilatzen du, ez gara ez gutxiago ez gehiago.

3. Irudien sormenaren inguruan hausnartzea:

Ikusmenari so eginez, oroitzapenen eta pertzepzio sensorialen bitartez irudiak sortzea paradoxikoa ematen du. Izan ere, argazkilari baten lana begiarekin eta ikusteko gaitasunarekin joan da beti lotuta. Hori kontuan hartuta, ikusmenaz ez balliatzeagatik argazkigintzan aritzeko oztopoa dagoela pentsatuko dute askok. Eta egon badago. Baina, argazkilari batek ikusmena erabili behar al du argazkiak egin edota irudi mentalak sortzerako orduan?

Munduko hainbat tokietako argazkilari itsuk ideia horren inguruan hausnartzeko aukera eman dute. Gabezi bisuala behin gainditua eta ikusmen, entzumen eta beste zenbait estimulu kontuan hartuta, berezko tekniken bitartez, irudiak sortzeko gai dira eta.

Evgen Bavcar, Alice Wingwall, Pete Eckert, Gerardo Nigenda, Sonia Soberats eta gehiago, irudiaren artea pertzepzio bisualetik haratago dagoenaren eredu dira, Gabor Benek *El País* egunkarian aitortu zuen behin:

Ikustea zer da?

Interesgarriena ez da ikustea edo ez ikustea. Interesgarriena da: errealitatean zelan ikusten dugu? Benetan, zuk ikus dezakezula, ikusten duzu? Zer ikusten duzu? Agian itsu bat ez da biktima eta ikusten duen norbait ez da zorionekoa. Itsua den norbaitengatik ez da penarik sentitu behar. Osatu ezin daitekeenaren

PAUXA

norbaitengatik pena sentitu behar da (Bene, 2016)⁵.

Ali Carreñok, begiekin ikusi ez arren, bere adimenean eta memorian bai ikusten duela adierazi zidan. Begiak ez baitu soilik ikusten ari garen hori eraikitzen, oroitzapenak eta pertzepzioak ere osatzen dute bakoitzaren memoria bisuala. Gombrichek aipatzen duen Plinio erromatar idazle, naturalista eta historialariak argi utzi zuen: "adimena, ikusmena eta begiratzearen benetazko instrumentua da, eta begiek ontzi mota baten antzerako funtzioa dute, zeinak kontzientziaren zati ikusgaia jaso eta adierazten duten" (Gombrich, 1998, 13 or.)⁶.

Adolf von Hildebrand eskultore neoklasikoak *El problema de la forma en el arte figurativo* idatzi zuen liburuan pertzepzioaren psikologiari buruz hitz egiten du: "Irudi mentalaren lehen-mailako eratzaileak aurkitzen eta aztertzen saiatzen baldin bagara, ikusmenetik eratorritako datu sensorialez eta ukimenetik eta mugimendutik datozen oroitzapenez osatuak daudela jakingo dugu" (Gombrich, 1998, 14 or.)⁷. Modelo bermeotarrak, esaterako, ukimena erabiltzen du elementu baten espazio eta formaren propietateak ezagutu ahal izateko, hau da, ukimen oroitzapenen bitartez objektu baten forma tridimentsionalaren pertzepzioa jasotzen du mentalki.

4. Ikusmenaz gain, garrantzitsuak diren beste zentzumenak ditugula oroitzea:

Inguratzen gaituen guztiaren zirrara esperientzia sensorial baten bitartez iristen zaie ikusten dutenei. Hala ere, sentsazioak ezin dira iturri bakar eta erabatekoak izan munduaren ulermena eta ezagutza aintzakotzat hartzeko. Gorputza bere osotasunean, eta ez bakarrik begiak, pertzepzio, pentsamendu eta kontzientzian berebiziko garrantzia du. Hori dela eta, zentzumenei garrantzi handia emango zaie proiektu honetan.

Evgen Bavcar argazkilariaren ustetan itsuek hurbiletik ikusten duten bitartean, ikusten dutenek urrunetik egiten dute:

⁵ Autoreak itzulita: "Lo interesante no es ver o no ver. Lo interesante es: ¿cómo vemos en realidad? ¿ De verdad tú, que puedes mirar, ves? ¿Qué es lo que ves? Quizá un ciego no es la víctima y alguien que ve no es el afortunado. Depende. No hay que sentir pena por alguien porque es ciego. Hay que sentir pena por alguien que no pueda realizarse"

⁶ Autoreak itzulita: "La mente es el verdadero instrumento de la visión y observación, y los ojos sirven como una especie de vasija que recibe y transmite la porción visible de la conciencia"

⁷ Autoreak itzulita: "Si intentamos analizar nuestras imágenes mentales para descubrir sus constituyentes primarios, encontraremos que se componen de datos sensorios derivados de la visión y de recuerdos del tacto y del movimiento"

PAUXA

Hurbiletik begiratzen dugu azalarekin begiratzen dugulako, arimarekin eta intuizioarekin - hirugarren begiarekin. Begiekin begiratzeak distantzia suposatzen du, azalarekin begiratzen den bitartean ordea, intimitatea. Begiekin ez da posible hurbiletik ikustea: bi pertsona besarkatu egiten direnean, hurbilegi daude eta ezin diote bata bestari elkarri begietara begiratu. Objektu batekiko distantzia hartu behar da ikusi ahal izateko. Itsuek hiru dimentsioetan ikus dezakegu, ukimenaren bitartez begiratzen baitugu eta horrekin bolumenak antzeman ditzakegu. Zuek, ikus dezakezuenek, bidimentsionala ikusten duzue. Ukimenaz hitz egiten dudanean, ez dut soilik atzamarrez hitz egiten, baizik eta gainazal osoari buruz. Eslovenian bizi den lagun itsu bat dut beso barik bizi dena eta braillea ezpaineekin irakur dezake (Bavcar, 2013)⁸.

Bavcarren ideia bera beste dokumentuetan ere topa dezakegu. Adibidez, *Notes of Blindness* (2016) bizitza errealean oinarritutako dokumental bat da, zeinetan protagonista itsu geratzen den. Ikustetik ez ikusterako prozesu dena eguneroko grabagailu baten azaldu eta irudien bitartez off-ahots hori janzten da. Niri arreta gehien deitu zidan pasartea azkenengo eszena da. Bertan, protagonistak lehenengo aldiz euria itsutasunean antzematen du eta orain arte konturatu ez zen usaimenaz gozatu eta bere gorputzaren gainean jauzten diren tantak sentitzen ditu. Horrek, euria begiekin bakarrik begiratzen baldin badugu, gauza asko galtzen ditugula erakutsi zidan.

5. Bizitza baloratzea eta itxurakerietan ez jauzte:

Roland Barthes filosofoak hiru elementu ezberdintzen ditu *La cámara lúcida* liburuan: *operator* (argazkilaria), *spectator* (ikuslea) eta azkenik, *spectrum* (erretratua). Bere ustetan, *operator*-aren funtsezko helburua zerbaiten edo norbaiten esentzia harrapatzea da. Hala, erretratua perfektuan bilakatzen da, subjektua argazki baten biktima dela konturatzen ez denean: "Objektiboagatik behatua sentitzen naizenean dena aldatzen da: pausatzearen ekintzan eraiki egiten naiz, berehala beste gorputz batean eratzen naiz, aurretik argazkian itxuraldatu egiten naiz. Argazkigintzak nire gorputza osatu edo hilduratu egiten

⁸ Autoreak itzulita: Miramos de cerca porque miramos con la piel, con el alma y con la intuición – con el tercer ojo. Mirar con los ojos implica distancia, mientras que mirar con la piel, intimidad. Con los ojos no es posible mirar de cerca: cuando dos personas se abrazan, están demasiado cerca y no pueden verse con los ojos. Hay que estar lejos de un objeto para poder mirarlo. Los ciegos podemos mirar en la tridimensionalidad, porque miramos a través del tacto y con el tacto percibimos los volúmenes. Vosotros, los que podéis ver, miráis lo bidimensional. Cuando hablo del tacto, no me refiero solamente a la punta de los dedos, sino a toda la superficie de la piel. Tengo un amigo ciego en Eslovenia que no tiene los brazos y puede leer el Braille con los labios.

PAUXA

duela senti dezaket" (Barthes, 1989, 40,41 or.)⁹. Kasu honetan, Ali Carreñok ez du ikasi zelan posatu behar den kamara baten aurrean, ez daki antzezten eta horrek naturaltasuna ematen dio argazkiari, une hori den modukoa erretratatzeko baita. Hala, isiltasunean ibiliz gero, nire presentzia sumatzen ez badu, berarentzako existitu ez banintz moduan izango litzateke, beraz ustekabean ohartu barik erretratatu dezaket. Izan ere, Barthesen ideiarra berriro bueltatuz, posatzerako orduan, gure zatietako bat galdu egiten dugula aitortzen du filosofoak, norbanakoaren leialtasunari so eginez eta paper itxuratu batean mozorrotuz: itxurakeriak besterik.

Gauzak horrela, nire eta Ali Carreñoren pertzepzioetik soma dezakegu nola lehen munduan bizi garenok korriketan gabilen, alde batetik bestera, geldialdi bat egin gabe, estresaturik, nahi ditugun gauzak lortu barik eta ondoren sare sozialetan izugarritzko zoriontasunean bizi garela antzeztuz. Behin Interneten ikusi nuenez, "ez esan zure bikoteari maite zaitut, sare sozialei esan maite duzula". Nepalen, ordea, kontrakoa sentitzen dugu. Hirugarren mundu baten bizi dira, kaos-ean eta bai euren bidegabekeriak eta arazoak izango dituzte, baina han purutasuna arnasten da. Kalera irten eta irribarrea janzten duzu aurpegian, jendearen berotasuna itzela delako, hostasunak ez du lekurik han.

Horregatik, proiektu honekin lortu nahi dena ere batzuetan gelditu behar gara oharrean, abiadura moteltzea, aurrean daukagunaz kontziente izatea eta automatikoki izaten diren sentimenduak azaleratuz bizitza baloratzea heltzea.

2.3 TESTUINGURUA

Argazki proiektu hau jatorrizko herritik kanpo egingo da Nepalera bidaiatuz, modeloak jarraitzen duen errutinarekin apurto eta testuinguru berri batean murgildu ahal izateko, hala esperientzia eta estimulu berri kontrolaezinak suertatuko dira.

Nire ustetan, Nepal kulturalki existitzen den lekurik harrigarrienetarikoa da eta bai nik argazkilari moduan bai modeloak, lekuarekiko konexio berezi bat sentitzearen

⁹ Autoreak itzulita: "Cuando me siento observado por el objetivo, todo cambia: me constituyo en el acto de posar, me fabrico instantáneamente otro cuerpo, me transformo por adelantado en imagen. Dicha transformación es activa: siento que la Fotografía crea mi cuerpo o lo mortifica"

PAUXA

ondorioz erabaki da Nepaleko memoria argazkietara eramatea. Pertsonen zoratzen garen moduan, lurraldeez maitemintzeko aukera ere badagoelako.

Aste santuko oporretako astean egingo da: Apirilaren 11tik 24ra, hau da, bidaiak bi asteko iraupena izango du. Denbora honetan, bitxikeri moduan Nepaldar urte berria ospatzen da Apirilak 13an, 2074.urtea hain zuzen, argazki proiektuan agertzen den kontzertuaren momentua horren hurrengo eguneko ospakizun txiki bat izan zen.



2016ko aste santuan, Ali Carreñok, Eneko Atutxa bere senarrarekin batera abentura berri batean murgiltzea erabaki zuten. Nepalera joan ziren helburu bakar batekin: haur nepaldar bat babesean hartu eta Bungamati herriko Disabled Service Association-eko itsuen eskolatzean lagundu umeei hezkuntza hobeto bat jaso ahal izateko. Aurten, aldiz, Ali Carreño, modeloa, Eneko Atutxa eta hirurok batera Bilbotik joango ginen, baina han Nepalen beste lagun euskaldun batzukien topatuko ginen: Beatriz de Francisco, Ali Carreñoren hitzetan aura berezia duen pertsona eta bere bikotea Txaber Ingunza.

Nepal nolakoa den deskribatzeko eta subjektibotasun horri eusteko errealitatean oinarritutako liburuetakoa pasarte batzuk ipiniko dira jarraian:

❖ UNA MAESTRA EN KATMANDÚ - Vicki Subirana

Laia, irakasle katalan bat, Katmandura joaten da eskola batean lan egitera. Han muturreko txirotasuna eta hezkuntzaren egoera penagarria ezagutzeko aukera izaten du eta azkenean boluntarioriaz eskola bat sortzea erabakitzen du baztertuak dauden umeei hezkuntza emateko. Drama hau Victoria Subirana irakasle katalanaren benetako bizitzan oinarrituta dago. 1959an jaioa, Victoriak deskubritu zuen bere lana beharrezkoa zela alfabetatu gabeko herrialde batean.

*

Boudha-Nath, 9 de julio de 1988

Pero, de repente, cuando a la mañana siguiente me encontré otra vez frente a la gran estupa, y vi a los tibetanos dando vueltas en derredor hacia un camino sin destino, sin fronteras, sentí que, por encima de la miseria, se respiraba una paz sin límites; nunca antes, en ningún lugar del mundo me había sentido mejor. (...) ¡El

PAUXA

calor humano es tan fuerte! ¡Y sus creencias son tan profundas! Les llevan a mirar su pestilente realidad, no como una situación estática e irresoluta, sino como un paso que les llevará definitivamente a una situación de bienestar eterno.

Comencé a dar vueltas como persiguiendo algo que nunca he sabido qué era. Nadie ahorraba una sonrisa. Me sentí humanamente ligada a aquella gente, que me pareció como si siempre hubiera hablado su lenguaje, como si todos formásemos parte de una gran familia. Soy feliz aquí (Subirana, 2013, 24,25 or.).

(...) Poco a poco fui consciente de que en Nepal existían otras gentes, aparte de los tibetanos y sus historias. Descubrí con deleite y fascinación que en Nepal coexisten sesenta y una etnias, que se caracterizan por tener sus propias lenguas o dialectos, y por practicar diferentes religiones y ritos, y tener distintas culturas, gastronomías, formas de vida y maneras de vestir (Subirana, 2013, 34 or.).

❖ UN REFUGIO EN KATMANDÚ - Angeles Ibirika

Amodioan oinarritutako liburu honek Nepaleko bazter bakoitza deskribatzen du, nahigabe ia gida bihurtuz. Txoko bakoitza ez ezik, nepaldarren bizi estiloa goraiatzeko protagonista den emakumearen ikuspuntutik.

*

-¿ Qué te enamoró? ¿ El tráfico insufrible, la contaminación y el polvo que no dejan respirar, el olor a humedad, la suciedad de las calles...?

-Es lo que tiene la pobreza extrema. Y a pesar de todo eso, aquí siempre hay sonrisas, celebraciones, personas que te dan hasta lo que no tienen. Este es un país bellísimo con gente bellísima, pero con enormes desigualdades sociales.

-¿ No existe nada por lo que dejarías todo esto?

-Esto es mi vida, y no lo cambiaría por nada ni por nadie.

-Supongo que hay que estar hecho de un barro diferente para vivir así.

- No lo veas como algo altruista. No lo es. Llegas aquí convencida de que vas a ayudar, pero cuando un niño de estos te abraza riendo y te dice que te quiere, ya no sabes quién está ayudando a quién (Ibirika, 2015, 108,109 or.).

3. IKUS-ENTZUNEZKO ERREFERENTZIAK

Argazki-proiektu honen irudiak sortu eta eraikitzerako orduan, erreferente batzuen eragina onartu behar da.

Hasteko, Eugene Atget eta Evgen Bavcar argazkilarien surrealismoa, inspirazio moduan baliagarria izan da. Surrealismoa, Susan Sontag-en hitzetan "munduko kopia baten sorkuntzan aurkitzen da, bigarren graduko errealitate batean, estuagoa baina ikusmen naturalarengatik antzemandakoa baino askoz ere dramatikoagoa" (Sontag, 2005, 81 or.)¹⁰.

Eugene Atget, 1875.urtean jaio zen argazkilari frantsesak Pariseko kaleak erretratatzeari aparte, proiektu pertsonal surrealista bat sortu zuen, ametsen edo barneko munduaren errepresentazioak eraikiz. Inolako manipulaziorik gabe, erreflexuen bitartez irudia beste dimentsio batera eramatea lortu zuen argazkilariak, hala nola, dendetako erakusleihoak, manikiak etab. Walter Benjamin filosofo alemaniarrek behin esan zuen: "Atget-en argazkiak noizbait krimen batekin konparatu izan dira. Baina ez al da gure hirietako bazter bakoitza krimen leku bat? Bertatik pasatzen ari direnak ez al dira kriminalak? Ez al du argazkilariak augure horren errua bere argazkietan estalgabetu eta erruduna bilatu beharrik?" (Benjamin, 1989, 88 or.)¹¹. Horrek zera esan nahi du, arteak aurreikusten duela; Gertatu zenaren edo gertatuko denaren ekintza ezezaguna da. Ideia honi proiektuan garrantzia eman zaio, argazkiak irakurtzerako eta hautaketa egiterako orduan, argazki bakoitzaren atzean iradokizun ezberdin bat baitago.

Evgen Barvcar 1946.urtean jaio zen Lokavec, Eslovenian. 12 urte zituelarik erabat itsu geratu zen bi gertakizun latzen ondorioz. Lehenengoa, 10 urterekin, basoan jolasten zegoelarik, zuhaitz baten adarra ezkerreko begian sartu zitzaionean gertatu zen. Hilabete batzuk geroago, Bavcar gerraren biktima bat bihurtu zen bake-denboran, izan ere, Bigarren Mundu Gerrako lurtar mehatze bateko

¹⁰ Autoreak itzulita: "El surrealismo se encuentra en la creación misma de un duplicado del mundo, de una realidad de segundo grado, más estrecha pero más dramática que la percibida por la visión natural"

¹¹ Autoreak itzulita: "No en balde se han comparado ciertas fotos de Atget con el lugar de un crimen. ¿Pero no es cada rincón de nuestras ciudades lugar de un crimen? ¿No es un criminal cada transeúnte? ¿No debe el fotógrafo descendiente del augur y del arúspice descubrir la culpa en sus imágenes y señalar al culpable?"

PAUXA

detonagailua, jostailu batean eraldatua, beste begian lehertu egin zitzaion, honi ikusgaitasuna kenduz.

Bavcar-en argazki gehien ezaugarri nagusienetarikoa gauean ateratakoak direla da, bere ikusmen baldintzatuaren erreflexu. Surrealismo asko dago bere argazki zuri beltzetan eta hori eragiteko, gainjartzeez aparte, argiaz ere baliatzen da. Linterna baten bitartez, esposizio luzeko tomak hartzen ditu argiarekin irudiak sortzeko.



Teknika horiek proiektuan aplikatuko dira, Ali Carreñoren pertzepzioko argazkietako argitasuna ezartzerako orduan batez ere, linterna baten ordez Photoshop-eko pintzelada tresna erabilita. Argitasun hori hiru arrazoiengatik jarri da: bata, modeloak Nepalekiko duen pertzepzioagatik; bestea, modeloak antzematen ez dituen elementuak desagerrarazteko; eta azkenengo arrazoa Pete Eckert argazkilariaren aparteko munduarekin lotu beharra dago.

Pete Eckerten ustetan, aurretik aipatutako bi munduak (ikusgarria eta ikusgaitza) banantzen dituen kristalaren azpitik itsuen ikuspuntutik ateratako irudiak metaforikoki "argitara" ateratzea suposatzen duelako.

Pete Eckert artistak kontzeptualtzat hartzen du bere burua. Bere argazkiak argi eta garbi ikusteko gai da, soinuak, ukimena eta bere memoria erabilita. Itsu geratu baino lehenago, argazkien antza duten marrazkiak egiten zituen. Beraz, kamerak artea modu desberdin batean eraikitzeak aukera ematen diola aitortzen du. Bere webgunean esaten duen bezala:

Erretratatzeko orduan, ateratzen dudana gertaera bera da eta ez, ordea, irudia. Inpresioak tamaina handian egiten ditut ikusmena duten pertsonen hausnartzera eramateko. Galeriatan pertsonekin ideiak partekatzeak zubi bat eraikitzen du nire ikusmenaren burutazio eta nire lana ikus dezakeenaren artean. Noizbehinka, batzuek

PAUXA

itsua naizela ukatu egiten dute. Pertsona bisuala naiz. Ikus ezin dezakedala da gauza bakarra (Eckert, 2017)¹².

Henri Cartier Bresson surrealismo munduan argazkiak ateratzen hasi baina azkenean instant erabakioarra ezizenagatik ezaguna egin zen.

1908.urtean jaio zen frantses honen pentsaera eta konposizioaren ideiak *Pauxa* proiektuko testuinguruko argazkiak egiteko baliagarriak izan dira: "argazkigintza niretzako, betiereko atentzio bisual baten berezko bultzada bat da, unea eta betierekotasuna harrapatzen duena" (Cartier-Bresson, 2003, 35 or.)¹³. Nepalen nengoenean, nire barnean nahasi egiten ninduen hura antzematerakoan arineketan kamerarekin erretratatzeko saiatzen nintzen, bizitzan dena baita iheskorra: "konposizioa gure arduetako bat izan beharko luke hein handi batean, baina argazkia ateratzeko unea intuizioan oinarritzen da guztiz, aldatu daitezkeen momentu iheslariei aurre egiten diegu eta" (Cartier-Bresson, 2003, 25 or.)¹⁴.

Pauxa argazki proiektuak Ruben Plasencia argazkilari eta Philip Barlow margolariak egindako lanekin zerikusi edo erlazio handia dauka ere.



Alde batetik, Ruben Plasenciak 2013.urtean *Obscure* itsutasunaren inguruko argazki-saioaren lana aurki dezakegu. Pertsona itsuek euren eguneroko bizitzan betaurreko ilunak erabiltzea atentzioa ematen zion, kasu askotan gutxiespen soziala ekiditeko. Beraz, begiratzera ohituta ez gauden begirada hori erretratatzeko grina piztu zitzaiola aitortzen du argazkilariak. Jose Saramagoren *Ensayo*

¹² Autoreak itzulita: "What I get out of taking photos is the event not the picture. I do the large prints to get sighted people thinking. Talking with people in galleries builds a bridge between my mind's eye and their vision of my work. Occasionally people refuse to believe I am blind. I am a visual person. I just can't see"

¹³ Autoreak itzulita: "La fotografía es, para mí, el impulso espontáneo de una atención visual perpetua, que atrapa el instante y su eternidad"

¹⁴ Autoreak itzulita: "La composición tiene que ser una de nuestras preocupaciones constantes, pero en el momento de fotografiar no puede ser más que intuitiva, ya que nos enfrentamos a instantes fugitivos en que las relaciones son móviles"

PAUXA

sobre la ceguera liburua irakurri ondoren, proiektua aurrera eramatea argi eta garbi ikusi zuen: "Uste dut ez garela itsu geratzen, itsu gaudela pentsatzen dut, ikusten duten itsuak, itsuak, ikusten, ezin ikusi" (Saramago, 2009, 244 or.)¹⁵.

Estereotipoen inguruan hausnartzeko gonbidapen bat egiten du Plasenciak argazki horiekin. Itsuek, ez ikusteagatik, pertsonen esentzia beste modu batean antzematen dutela erakutsi nahi du argazkilariak. *Pauxa* proiektuaren kasuan, mundua bere osotasunean antzemateko zentzumenek jokutzen duten papel garrantzitsua erakutsi nahi izan da.

Bestetik, Philip Barlow Hegoafrikako margolaria dago, olio-pinturan espezializatua. Hiperrealismo eta argazki-errealismo estiloetan artistak ahalik eta errealismo gradu handiarekin kopiazen baditu argazkiak, Philip Barlow margolariak beste efektu baten atzetik doa: Bokeh deituriko japoniar kontzeptuaren atzetik, desfokuratzea esan nahi duena. Artistak burututako *The colour of light* izeneko proiektuan, miopiaz sufritzen duen pertsona batek munduarekiko duen pertzepzioaren margoak burutu zituen Barlow-ek. Horrela, kolorea eta argia jokoan sartzen diren elementuak izanik, modu abstraktu batean aurkeztutako margo horiek ikusleari istorio eta esanahi ezberdin bat antzemateko aukera ematen die.



Bestalde, Gerardo Nigenda eta Duane Michals argazkilarietatik proiektua aurkezteko moduan eta bere osaketan eragin didate, hala nola, markoa osatzerako, braille idazkera erabiltzerako eta haikuak sortzerako orduan.

Gerardo Nigenda Oaxaca, Mexikon jaio zen 1967an. 26 urte zituenean, endekapenezko gaixotasun kroniko baten eraginez itsu geratu zen. Baina, 32 urte bete zituen arte, ez zen argazkigintzako munduan hasi. Urte horretan, 1999an, Nigendak bere etxetik Álvarez Bravo Argazkigintzako Zentroraino dagoen ibilbidea erretratatu zuen.

Bide hori dokumentatu ahal izateko zenbait tresna erabili zituen: kamara, argazki-pelikula, soinuak, oroitzapenak, zirrarak, zurrumurruak.. Ez hori bakarrik,

¹⁵ Autoreak itzulita: "Creo que no nos quedamos ciegos, creo que estamos ciegos, ciegos que ven, ciegos que, viendo, no ven"

PAUXA

argazkietan bertan testua eransteko Braille idazmakinez baliatu ohi zen, hala, eszenan zeuden detaile zein koloreak edo momentuan bizitako emozioen azalpena idazten zuen, irudizko poesia batean bihurtuak:



Se asoma la ilusión en el rostro del alma (Nigenda, 2004)

El inmenso aroma de mi afecto (Nigenda, 2007)

Horrek nire proiektuan giro-soinua sartzeko ideia eman zidan, ikusmenarekin ez ezik, entzumenarekin ihes egin eta bidaiatu ahal izateko. Ez hori bakarrik, poesia batek edo une jakin horretako deskribapen edo sentsazioek transmititzen dutena ohartuta, hau da, kontaktak argazkia zelan haratago eramaten duen jabetzerakoan, poesiak sartzea erabaki nuen, Ali Carreñoren sentsazioekin lotuta, braille idazkeran irakurtzeko aukera gaineratuz.

Berez, Gerardo Nigendaren argazki bakoitza itsutasun bikoitz bat da. Argazkien edukia jakiteko norbaiten beharra baitzuen Nigendak, baina, aldi berean, ikusten zuen pertsonak Nigendaren beharra zuen braillea irakurri ahal izateko. Bi operazioak beharrezkoak dira Nigendaren argazkiak sortu eta irakurtzeko, horrela, ikusmen eta itsumen munduen artean zubi estu bat eraikitzen du nahita.

Teknikari dagokionez, ez dio honi gehienezko garrantzirik ematen, izan ere, zerbait komunikatzea da bere helburua. Ukimenez, usaimenez, entzumenaz eta istanteetako pertzepzioetatik eramaten uzten da. Hor konturatu nintzen zelan proiektuak ikusmenaz haratago joan beharko lukeen, dauden bost zentzumenak nahastuz: entzumena, ikusmena, usaimena, dastamena eta ukimena. Izan ere, ikusten dutenek argazkigintzan zentzumen bakarra erabiltzera ohituta daude, ikusmenarena. Baina argazki bat atera baino lehen begiak ixtera ohitu beharko ginatke, hala, itsasoa usainduz, modeloaren aurpegia ukituz, irribarrea dastatuz.. Momentu hura izozteko eta oroitzeko beste pertzepzio ezberdin bat edukitzeko ahalmena lortuz.

PAUXA

Duane Michals argazkilari espresionistari esker, argazki sekuentziaren ideia eta proiektu osoak eta argazkiak berak istorio bat kontatu behar zuela ikasi nuen.

Surrealismoaren edo irudikapen onirikoaren presentzia garbia den argazkietan, Duane Michals-ek ikuslea beti proban jartzen du, zeinak erretratatuak hutsuneak betetzera behartuta ikusten den argazkiaren esanahia harrapatu ahal izateko. Umberto Eco irakurlea definitzerakoan azaltzen duen ideia bera da:

Fikzioaren narratiba osoa beharrezkoa eta halabeharrez azkarra da, zeren (mundu bat eraikitzen duen bitartean- unibertso diegetikoa-), bere gertaera eta pertsonaiekin) ezin dezake mundu honetaz dena aitortu (laburpen eta elipsi ohikoak). Zeharka aipatu, eta gainerakoak irakurleari hutsuneak betetzea eskatzen dio. Izan ere (...) aparatu alfer bat den testu orok, irakurleari eskatzen dio bere lanaren zatia egitea (Eco, 1996, 11or.)¹⁶

Michals-ek teknikatik urrundu eta emozioak pizteari garrantzia ematen dio. Baina estatubatuar honen ezaugarririk esanguratsuenetarikoa sekuentziaren erabilpena da eta baita argazkian eskuz erantsitako idatziak edo mezuak ere, argazkiaren elementu bisual gisa azaltzen direnak. Artistarentzako argazkia irudia ulertzeko modu bat da, errealitatearen deskribapen hutsetik aldentzen saiatzeko modu bat: "Ni ez naiz argazki-gaiaren bila ibiltzen. Ez dut sekula eramaten kamerarik aldean. Nire kamera nire buruan dago. Interesatzen zaizkidan irudi bakarrak ikusezinak dira" (Michals, 1998)¹⁷.

Esaterako, berak kontatzen duen moduan *A letter from my father* bere aitari egindako argazkia soilik egingo balu, 50 urte zitueneko itxura erakutsiko luke, baina berak argazkian antzematen ez ziren ideiak transmititzeko nahia sentitzen zuen eta, horretarako, euren bien arteko maitasun eza



¹⁶ Autoreak itzulita: "Toda ficción narrativa es necesaria y fatalmente rápida, porque (mientras construye un mundo- universo diegético-), con sus acontecimientos y sus personajes) de este mundo no puede decirlo todo (típicos resumen y elipsis). Alude, y para el resto le pide al lector que colabore rellenando una serie de espacios vacíos. Y es que (...) todo texto es una máquina perezosa que le pide al lector que le haga parte de su trabajo"

¹⁷ Autoreak itzulita: "Nunca busco algo que fotografiar. Jamás llevo una cámara encima, mi cámara está en mi cabeza"


PAUXA

azaltzen zuen mezu bat idaztera behartua ikusi zuen bere burua.


Beraz, mezuak, idatziak, argazkia osatzen dute. Eta argazkiek mezu hori janzten dute aldi berean.

Hori dela eta, Pauxa proiektuan egindako argazki sekuentzian istorio bat kontatzen saiatu naiz. Bidaia bat. Denboran pausa bat. Pinpilinpauxa askatasunerantz edo kaiolarantz eramaten duen hasiera eta amaierarekin. Horretarako lehenengo eta azkenengo argazkiaren artean egitura zirkular bat osatu dut, halako simetria bilatuz.


Hasierako argazkian Ali Carreño pozik dago, Nepalera heltzeko irrikan, ilusioz beteta, eta bere pertzepzioaren irudia zuria da, berak Nepal eguzkiarekin erlazionatu egiten duelako, Nepalek argi asko duelako. Izan ere, bere ingurutik kanpo egon arren, pertzepzio askoz ere puruagoa eta hutsagoa senti dezake han, guztiz maitatua, erruki eta gaitzik gabe, berdintasunean sentitzen da.




31.01.2018
Hogorik ezak
hasiera da



Denboran pausa
bizi izan duen
pinpilin-paurak




PAUXA



Amaierako argazkian, aldiz, goibel dago, tristura eta buruko-minarekin, Nepalen bere zatitxo bat uzten duenaren sentsazioarekin. Hala, bere pertzepzioaren irudia beltza da, momentu latzak mendebaldeko irakurketan kolore ilunekin erlazionatzen ditugu eta. Argazkian distira gehiago egotearen arrazoia, buruko mina duenean puntu eta marra gehiago ikusten dituela da.

Sortutako webgunean hirunaka banantzen dira argazki sekuentziak eta bakoitzak istorio edo esperientzia bat kontatzen du, bere osotasunean pertsona itsu batek, kasu honetan Ali Carreñok bizitako esperientzia ezagutzeko aukera emanez. Hasierako sekuentzia, beraz, egunerokotasuneko gauzeekin zerikusia du, kalea eta janaria.


Thamel errepideko argazkian zaratak ez zuela gogaitzen aitortu zidan: "Koadro bat ikusten duzunean bezala, hau hemen, hura han...paisaiaren parte da. Zarata ez zait deigarri egiten ingurunearen zati baita". Horrela, Nepaleko burrunbilaren momentuak atera eta bereziki kamioietan eta autoetan zentratu nintzen ibilgailu hauen klaxonak atentzio gehien eman zion soinua baitzen.



OR2K jatearearen izena duen istantean pertsona itsu baten zailtasunak edo oztupoak erretratatu nahi izan dira. Testuinguruko argazkian esku batek zelan tomatearen katilua hartzerantz doan edo eskua bertara sartzera doan ikus daiteke. Horrek bi egoera aurkezten ditu, bata tomatea kendu eta abisatzeaz ahaztuz gero, berak ondoren espazioaren pertzepzioaren ideia galduko du gauzak lekualdatzeagatik. Eta bestea, une jakin horretan gertatu zenaren aurreikuspen bat egiten du: "Ez dut uste inork zikintzea gustuko duenik, ezta? Baina noski, ez nekienez hor zegoenik, eskua ipintzerakoan.." tomatearekin topo egin zuen. Aliren pertzepzioan hori islatu nahi izan da, nola lehenengo argazkian tomatearen katilua

PAUXA

ez dagoela ikusten den, baina ondoren tomatearen irudia agertzen den gertatutakoari erreferentzia eginez. Baina oztopoak onera edo txarrera eramatea norberaren baitan dago, eta Ali Carreñok pentsatzen duen moduan: "Tomatearekin zikintzen banaiz, ez da ezer gertatzen, garbitu eta kitto. Ez da soluziorik ez daukan ezer, bizitza horrela hartu behar dela uste dut".



Argazkien argitasuna edo ia erreta daudenaren sentsazioa Fernando Meirellesek zuzendutako *A ciegas* (2008) pelikulatik inspirazioa hartu dut. *A ciegas* filma Jose Saramagoren *Ensayo sobre la ceguera* liburuan oinarritua dago. Literatur obra bat izateaz gain, pieza soziologiko bat ere bada, zeinetan aurkezten dituen egoeren aurrean gizarteko egitura eta portaerak aztertzeraz eramaten gaituen, norberaren burua zalantzan jarriz. Horretarako, itsutasun zuria deituriko epidemia batean murgiltzen du gizarte osoa, pertsonaiak euren adimenean argia etengabe somatuz.


Saramagoren ustetan "itsutasun okerreña mentala da" (Saramago, 2009) ¹⁸. Hala, pertsonaien itsutasuna norberaren barruko itsutasun metaforikora hurbiltzea funtsezkoa zela aitortzen du Meirellesek bere pelikulan. Ohartzea zelan batzuetan geure burua ikustera ezgai garen. Beste batzuetan, ingurunean daukagunaren pertzepzio falta soma daitekeela. Eta beste hainbat alderdietan, munduko bidegabekerietako aurrean bizi garen itsutasuna salatzea zen helburu: txirotasuna, planetaren suntsipena eta horrelakoak.

Hori dela eta, hitzetatik irudietara istorio hura eramateko Meirellesek irudia berreraiki behar zuela dio. Horrela, erreflexu eta espejismoekin lan egitea erabaki zuen ikuslea desorientatzeko, hau da, helburua desoreka bat sortzea zen: "azkenean enkoadraketa arraroak erabili genituen, zeinetan ekintza zentratuta ez dagoenaren itxura ematen duen, kamera-operadore itsu batek filmatu izan balu bezala, entzumenari esker gidatzen dena". Bisualki oso ikusgarria eta interesgarria


¹⁸ Autoreak itzulita: "La peor ceguera es la mental"

PAUXA

den pelikula hau, *Pauxa* proiektuaren argitasuna eraikitzeko inspirazio-iturri izan da. Filmean sortutako lausotasunaren efektua eta argi-distiren kontzeptua argazkietara hurbilduz.




Argitasun hori proiektuko bigarren sekuentzian argiago antzeman daiteke: Disable school-eko umeen pasartean. Istorio hau hiru multzotan banatu dut, Ali Carreñoren umeenganako pertzepzioan oinarrituz: bata, umeen indarra, bestea, alaitasuna eta, azkenengoa, ezintasuna. Modeloak dioenez, gogorrak bezain txikiak dira, indarra transmititzen diote eta hori, irudira eramaterako orduan, eskuetan eta euren konfiantzan islatu nahi izan dut. Izan ere, entzumenaz gain, ukimena, hau da, eskuak euren begien funtzioa hartzen dutela konturatu nintzen eta ausardia, bizitzan sufritutako istorio latzenetatik ateratzen duten indarra, bidean zelan gidatu eta laguntzen diren irudikatu nahi nuen. Alaitasuna, nola ez, irribarre batean bihurtu behar nuen, eta aldi berean, irribarre horrek transmititzen duen bizipoza. Dena den, Ali Carreño umeekin dagoenean osotasun sentazioa sentitu arren.. "batzuetan apurtutako zubi batek banatzen gaituela pentsatzen dut. Haien alde batean, ni bestean; eta haiengana heltzen saiatzen naiz, laguntzeko asmoz". Beraz ezintasun hori itsutasunak jartzen dituen oztopoak gogora ekartzen ditu, modeloak uste duen bezala, bizitzako esparru batzuetan mugatzen duenaren islan.



PAUXA

Hurrengo sekuentzia, espazioetan zentratuko litzateke gehien. Printzipioz, niretzako bisualki ikusgarri zen toki bat, bermeotarrantzako ez zeukan inolako edertasunik: Boudhnat, Katmanduko tenplu budista sakratuenetariko bat. Beraz, hor ohartu nintzen zelan lekuaren inguruko istorioa kontatzeak berebiziko garrantzia zuen bere pertzepzioan. Ez hori bakarrik, entzumena eta usaimenak ezinbesteko papera jokatu zuen eta instant horretan informazio gehiegi jasotzeak adimena lausotu zion. Hori dela eta, bere pertzepzioko argazkian ezereza ikus daiteke, aspertzen zion lekuaren adierazpen gisa.





Beste bi espazioek ingurune baten konparazioari erreferentzia egiten diote. Hau da, nik leku zabal batean ikus-eremu handiagoa izateak seguruago sentitzen naizenaren sententzia badut, Ali Carreñok guztiz kontrakoa. Berak espazio zabaletan estutasuna, egonezina eta beldurra sentitzen du. Izan ere, hormarik eta erreferentziarik ez izateak, hutsune erraldoi bat eragiten dio, amildegi batetik jauztearen antzerakoa. Beraz, azkenengo ideia hori kontuan hartuta, bere pertzepzioaren argazkian amildegian behera doan sententzia transmititu nahi izan dut, norbera argazki erdian zentratzen den iluntasun edo desoreka horretara bidaiatuz. Helburua egoera nahasia dela adieraztea da.

Barthesek bi elementu erabiltzen ditu argazki batek transmititzen duena adierazteko: *studium*-a eta *punctum*-a. Alde batetik, *studium*-a dago, hauek kodifikatuak dauden elementuak dira, hala nola kultura moral eta politikoa, marko historikoak etab. Bestetik, *punctum*-a aurki dezakegu eta Roland Barthesen ustetan "ez da bilatzen, eszenatik ziztada baten moduan norbera ziztatzeko helburuarekin atera egiten da, urratzen duen kasualitate hori" (Barthes, 1989, 64 or.)¹⁹. Hori dela eta, *studium*-a gure gustokoa izan daiteke edo ez, ez dugu zertan bultzada bat sentitu beharrik. Baina, benetan argazki bat beste batzuegandik ezberdindu eta bereizten duena *punctum*-a da, detaile txikitxo hori, orbana edo kasualitatea. Nire

¹⁹ Autoreak itzulita: "Esta vez no soy yo quien va a buscarlo, es él quien sale de la escena como una flecha y viene a punzarme"

PAUXA

ustetan, *punctum* hori hitz egindako leku zabal horren argazkian nabari da: ia eremuz kanpo oihukatzen ari den umean. Modeloa ikaraturik ikusten dugu, baina ikara horrek usoak edo umeak eragiten dio?




Aldiz, leku itxi batean ihes-puntu gutxiago edukitzearen ondorioz, normalean harrapaturik eta arriskuan sentitzen naizenaren pertzepzioa badut, modeloak berriro ere aurkakoa sentitzen du. Horma ukitu, aurpegia babestu eta paretaren erreferentzia jakin ahal duenez, lasaiago sentitzen da. Horretarako, eskuak bidean zelan gidatu eta babesten duten ikus daiteke bere pertzepzioko argazkian, argitasunerantz bidean.


Ali Carreñoren pertzepzioko argazki subjektiboak sortzerako orduan, Silvia Grav Euskal Herrian jaiotako argazkilariaren teknika ezinbestekoa izan da. Gravek surrealismo onirikoa, poesia aztoragarria eta zuri beltzaren arteko argazkiak sortzen ditu. Bere bizitza existentzialismo konstante bat zela konturatzerakoan, errutinatik ihes egin eta egunak baloratzen uzteari amaiera emateko modu bakarra imajinazioan aurkitu zuen. Baina hori adimenean bakarrik existitu egiten dela dio artistak eta zerbait fisikoagoa behar zuela azaltzen du *Anormalmag* aldizkarian egindako elkarrizketan: "nire estiloa bizitzea gustatuko litzaidakeen mundu baten

PAUXA

proiektzioa da besterik ez" (Grav, 2017)²⁰. Bere sortze-prozesuan, elementuak gaineratu edo kendu egiten ditu pisu narratiboa eta milaka irakurketa posible egiteko. Gainera, kontrastearen efektua nabarmena da eta argazki bakarrean irudi bat baino gehiago gainjartzeko ohitura du, naturako elementuak erretratuekin nahastuz. Bere lanaren erdia baino gehiago post-produkzioan oinarritzen da bere imajinazioan dauden ideiak egia bihurtzeko, eta Photoshop programaren bitartez artistak erabilitako baliabide eta jakintzak ezinbestekoak izan dira Ali Carreñoren pertzepzioko argazkiak editatzerako orduan, hala nola, pintzelada tresna, ehundurak, gainjartzeak eta beste hainbat teknika.



Ondorengo sekuentziak konexio eta harremani egiten die erreferentzia. Kontzertuko argazkian jende asko bere inguruan sentitzen zuela azaldu zidan eta bat-batean han dantzan nepaldarrak hurbildu eta haien parte egin gintuzten, denak korru batean dantzatzen bukatuz. Elkartasun hori modeloarentzako musikak eta nepaldarrak transmititzen dioten ostadarrean bihurtzen da, kolore biziak alaitasunarekin lotzen baititu. *El extraño fenómeno de la sinestesia* liburuan Frederick Starr irakasleak kolore entzumenari buruz hitz egiten du: "Haurtzaroan itsu geratzen dena, behin koloreak ikasita, kolore sentazioak antzematen hasten da bere entzumenean" (Harrison, 200, 42 or.)²¹. Kontzertuko musika ostadar batekin alderatu izanak, Ali Carreñok kolorea entzumenaz aditzen duela esan nahi du.





²⁰ Autoreak itzulita: "Mi estilo solo es una proyección del mundo en el que me hubiese gustado vivir"



²¹ Autoreak itzulita: "Quienes quedan ciegos en la infancia, toda vez que ya hayan aprendido los colores, muy pronto empiezan a percibir sensaciones de color en su audición"

PAUXA

Bestalde, Nepalen igarotako denbora gehiena Beatriz de Francisco lagunaren alboan eman zuen eta berarekin sentitzen duen konexio bereziagatik proiektuan sartu behar nuela uste nuen. Izan ere, Ali Carreñok bere laguna Bea hitz batean definitzen du: argia (Nepalen antzera). Aura berezi bat duela eta bidean lagundu egiten diola dio. Horrela, argazkian agertzen den istant hau, proiektu honen azken aurreko argazkiarekin lotuta dago: tatuajearen argazkiarekin, hain zuzen. Beatriz de Franciscok marraztutako loto-loreak esanahi asko ditu, baina bi emakumeak hobekien definitzen dutenak hauek dira: hondakinetatik biziraun eta argitasunaren bila doan loto loreak purutasuna bilatzen du.




Nepalera joan aurretik, Ali Carreñori bizitzan ikustea falta gehien sumatzen duenaren inguruan galdetu nionean, itsasoa erantzun zidan. Behin Nepalen etxeko balkoira igo ginenean itsasoa senti zezakeela aitortu zuen, bere aurpegian haize leuna sentituz. Horretarako, haizeak bere ilean, aurpegian eta memoria bisualean astintzen duen ideia argazkira eramateko, irudiak urdinez josi eta Silvia Grav argazkilariak egiten duen moduan, irudimenaren bitartez, zerua itsasoa bihurtu dut.




Azkenengo sekuentzia, bidaiari puntu bereizgarri bat da: aldaketa. Ringon Thasi Monastery-ra joan ginenean monjeek abestutako mantrak entzuteko aukera eduki genuen eta hala deskribatzen du bermeotarrak momentu hura: "beste mundu batera noa, ez dakit egia esan nora, baina ezagutzen ez dudan beste mundu batera, nonbaiten galdu egiten naiz. Eta ez dut ezertan pentsatzen, ezer ez

PAUXA

sentitzen". Mantrek askatutako dardarei esker meditazioan sentitzen ohi diren sententzioak bizi izan zituen modelook, eta arrazoi horregatik munduarekiko deskonexio hori islatu dut haikuan eta pertzepzioko argazkian, azken hau txuriz irudikatuz burua hutsik gelditzearen sententzioa marrazten saiatzeko, gaztelaniaz *mente en blanco* esaten dena.



Hondakinetik
Barru du azala
loto larrik



Paniphokari, tatuaje dendako momentua, bere bizitzan aldaketa bat izan dela aitortu zuen. Izan ere, betidanik gorrotatu ditu tatuajeak eta azkenean bat egitera ausartu izana hasiera berri baten isla dela azaltzen du Ali Carreñok. Nepaleko bidaiari ikasitakoak bere bizitza berritu omen duelako, bere hitzetan:

Zerbait esan behar badut, ikaskuntza eta hazkuntza bidaiari izan dela esango nuke. Umeeekin geratzen naiz, azken finean zure egunerokotasunaren parte baitira, gero urrun egongo naizela badakit ere. Jendareekin geratzen naiz, positibo izan den guztiarekin, lasaitasunarekin, bakearekin.. han ez ditudanak. Ez dakit, berezia izan da.. Ez duzu irribarrea galtzen, zeren eta zure inguruan dauden guztiak irribarretsu bizi dira, eta hori kutsatu egiten da. Hori da eramaten saiatzen naizen gauzetariko bat.

4.ONDORIOAK

Ondorio moduan esan, arte kontzeptualera hurbiltzen diren argazki hauek egiteaz asko gozatu dudala, Ali Carreñoren mundua ezagutu eta baita nireaz hausnartzeko tartea izan dudalako. Hasieran argazkiez bakarrik osatua egongo zen proiektua, denboraren poderioz, mezuz, haikuz eta soinuez hornitzen joan da, nire zentzumen guztiak aktibatuz eta istorio ederra sortuz. Esaterako, argazkiei gaineratutako soinuei esker, argazkia begiratzean koadroan dagoena bizitza hartzen duela antzeman dezaket, objektuak mugitu egiten dira nire adimenean eta horrek begiak ixtea eragiten dit ere.

Bestalde, Disable School-eko zuzendariak irakatsi zigun pasarte batek borobiltzen du *Pauxa* argazki-proiektua. Hark, itsutasuna eta ezgaitasuna ez ditu esaldi berean sartzen, ez baitu itsutasuna ezgaitasun baten modura ulertzen. Adibide modura, niri galdetu zidan ia zertan nintzen ona eta sormenarekin zerikusi zuen guztiarekin trebe sentitzen nintzela erantzun nion, ondoren ia zertan nintzen txarra galdetu zidan eta neuk fisika eta kimikan kaskarra nintzela erantzun nion. Orduantxe esan zidan gauza batzuetarako oso ona izan al nintzatekeela eta beste batzuetarako ez horrenbeste, beste batzuetan oztopoak aurki al nituzkeela, bakoitzak bere indar eta ahultasun puntuak ditu eta.

Horregatik tximeleta erdia ikustearen ideia norberaren pertzepzioan dago. Ali Carreñok tximeleta erdia sumatzen baldin badu, inperfektua dela pentsatuz, nik tximeleta albotik ikusita antzematen dudala esan dezaket, tximeleta osoa dela esanez.

5.LAN KRONOGRAMA

❖ ETAPAK:

Lehenengo etapa: Ideia

Bigarren etapa: Ikerketa

Hirugarren etapa: Errealizazioa

Laugarren etapa: Memoriaren idazketa

Bosgarren etapa: Post-produkzioa

Seigarren etapa: Webgunea

❖ ZEREGINAK:

Z1: Ideia pentsatu eta bideragarritasuna aztertu

Z2: Ideiaren inguruko ikerketa bibliografikoa burutu

Z3: Eskuratutako bibliografia aztertu eta ideia garrantzitsuenak atera

Z4: Elkarrizketak modeloarekin burutu

Z5: Bibliografiaren kontzeptuak proiektuarekin lotu, memoria idatzi eta egindakoa berrikusi

Z6: Ikuspegi kontzeptualaren garapena egin eta inspirazio iturriak bilatu

Z7: Proiektuko zuzendariarekin batzartu eta lana partekatu

Z8: Beharrezko argazki-ekipoa prestatu

Z9: Argazki eta edizio probak egin

Z10: Bidaiaren antolaketa

Z11: Bidaia

Z12: Argazkien aukeraketa

PAUXA

Z13: Argazkien edizioa

Z14: Audioen edizioa

Z15: Haikuen sormena

Z16: Braille idazkera sisteman haikuak idatzi eta ahotsarekin grabatu

Z17: Webgunea sortu eta bertan argazkiak, soinuak eta haikuak txertatu

❖ HELBURUAK:

H1: Ikusten dutenei itsuen errealitateari hurbiltzeko aukera ematea

H2: Itsutasunaren inguruko aurreiritziak burutik kentzea

H3: Irudien sormenaren inguruan hausnartzea

H4: Ikusmenaz gain, garrantzitsuak diren beste zentzumenak ditugula oroitzea

H5: Bizitza baloratzea eta itxurakerietan ez jauztea

LEHENENGO ETAPA: IDEIA 1016ko azaroa eta abendua		
Zeregina	Helburua	Egokitutako denbora
Z1	H1, H2	2016ko urria eta abendua
BIGARREN ETAPA: IKERKETA 1016ko abendutik 2017ko maiatza arte		
Zeregina	Helburua	Egokitutako denbora
Z2	H3, H1	2016ko abendutik 2017ko martxoa arte

PAUXA

Z3	H3, H1, H4	2016ko abendutik 2017ko maiatza arte
Z4	H1, H2, H3, H4	2016ko abendutik 2017ko maiatza arte
Z6	H1	2016ko abendutik 2017ko apirila arte
Z7	H1, H2, H3, H4	2016ko abendutik 2017ko maiatza arte
<p>HIRUGARREN ETAPA: ERREALIZAZIOA</p> <p>1016ko martxotik 2017ko apirila arte</p>		
Zeregina	Helburua	Egokitutako denbora
Z8	H1	2016ko martxotik 2017ko apirila arte
Z9	H1	2016ko martxotik 2017ko apirila arte
Z10	H1	2017ko apirila
Z11	H4, H5, H1	2017ko apirilaren 11tik 24ra
<p>LAUGARREN ETAPA: MEMORIAREN IDAZKERA</p> <p>1016ko otsailetik 2017ko maiatza arte</p>		
Zeregina	Helburua	Egokitutako denbora
Z5	H1, H2, H3, H4	2016ko otsailetik 2017ko maiatza arte
Z7	H1, H2, H3, H4	2016ko urritik 2017ko

PAUXA

		maiatza arte
<p>BOSGARREN ETAPA: POST-PRODUKZIOA</p> <p>1016ko apiriletik 2017ko maiatza arte</p>		
Zeregina	Helburua	Egokitutako denbora
Z12	H1, H4, H5	2016ko apiriletik 2017ko maiatza arte
Z13	H1, H3	2016ko apiriletik 2017ko maiatza arte
Z14	H4	2016ko apiriletik 2017ko maiatza arte
Z15	H4	2016ko apiriletik 2017ko maiatza arte
Z16	H4	2016ko apiriletik 2017ko maiatza arte
<p>SEIGARREN ETAPA: WEBGUNEA</p> <p>1017ko maiatza</p>		
Z17	H1, H2, H3, H4, H5	2017ko maiatza

BIBLIOGRAFIA

- Aldamizetxebarria, J. (2002). *Denbora igarotzen ez denean*. Bilbao, España: Ediciones Beta III Milenio, S.L.
- Aldamizetxebarria, J. (2004). *Bihotzaren Lautadak*. Bilbao, España: Ediciones Beta III Milenio, S.L
- Alvarez, T.(2015). *Gerardo Nigenga, fotografía desde el tacto*. The lighting mind <http://www.thelightingmind.com/gerardo-nigenda-fotografia-desde-el-tacto/>
- Artefeed.Desenfoque-Pinturas de Philip Barlow. <http://artefeed.com/philip-barlow/>
- Barlow, P.(2015). *Philip Barlow*. <http://www.philipbarlow.com>
- Barthes, R. (1989). *La cámara lúcida, notas sobre fotografía*.1980. Barcelona, España: Ediciones Paidós Ibérica, S.A.
- Benjamin, W. (1989). *Pequeña historia de la fotografía, Discursos Interrumpidos I*, Buenos Aires: Taurus
- Berti,E.(2007).*Evgen Bacar, fotógrafo ciego*. Letras libres <http://www.letraslibres.com/mexico-espana/evgen-bavcar-fotografo-ciego>
- Brett,M.; Jamison,S.(ekoizleak) eta Middleton,P.; Spinney,J. (zuzendariak)(2016) *Notes on Blindness* (dokumentala) Erresuma Batua: Archer's Mark
- Cartier-Bresson, H. (2003). *Fotografiar del natural*. Barcelona: Editorial Gustavo Gili.
- Colorado, O. (2011). *El instante decisivo de Henri Cartier-Bresson* https://oscarenfotos.com/2011/11/19/el-significado-del-instante-decisivo-de-henri-cartier-bresson/#_edn9
- Cruz H.,S (2016) *Gabor Bene: la vida de un director de fotografía ciego*. <http://www.elpais.com.co/entretenimiento/cultura/gabor-bene-la-vida-de-un-director-de-fotografia-ciego.html>
- Del Rosal, F. (2014) *Obscure: Ensayo fotográfico sobre la ceguera*. http://www.eldiario.es/canariasahora/premium_en_abierto/Obscure-Ensayo-fotografico-ceguera_0_304119881.html
- Duarte, S. *Evgen Bavcar: El fotógrafo ciego* <http://clubdefotografia.net/evgen-bavcar-el-fotografo-ciego/>
- Eco, U. (1996). *Seis paseos por los bosques narrativos*. Barcelona, España: Lumen
- Escobar, F. *Silvia Grav: Proyecto el mundo en el que me hubiese gustado vivir*.(2017) <http://www.anormalmag.com/entrevistas/silvia-grav/>

PAUXA

- Fernández, G. H. LaHiguera .net: música y cine en un portal de ocio. <http://www.lahiguera.net/cinemanía/pelicula/3237/comentario.php>
- Fernandez-Santos, E. (1998). Duane Michals explica que los materiales de sus fotografías son los procesos de su mente. http://elpais.com/diario/1998/06/25/cultura/898725603_850215.html
- Fichman, N.; Sakai, S.; Barata, A. (ekoizlea) eta Meirelles, F. (zuzendaria). (2008). *A ciegas* (zinta zinematografikoa). Kanada, Japon eta Brasil. O2 Filmes, Asmik Ace Entertainment, Corus Entertainment, Rhombus Media, Bee Vine Pictures, IFF/CINV, Movie Central Network, Téléfilm Canada, Alliance Films, Ancine, BNDES, Fox Filmes do Brasil, GAGA Communications
- Grafica Revista (2015). *Duane Michals, la vida retratada en una secuencia* (2013). <http://graffica.info/duane-michals-fotografia/>
- Gombrich, E.H. (1998). *Arte e Ilusión*. Madrid, España: Ediciones Paidós Ibérica, S.A.
- Gómez E.C. (2015). *Pete Eckert, el fotógrafo ciego maestro en el uso de la luz*. https://www.vice.com/es_mx/article/pete-eckert-el-fotografo-ciego-maestro-en-el-uso-de-la-luz.
- Harrison, J. (2004). *El extraño fenómeno de la sinestesia*. 2001. México, D.F.: Fondo de Cultura Económica.
- Ibirika, A. (2015). *Un refugio en Katmandu*. Barcelona, España: Ediciones Planeta, S.A.
- Kessels, E. *Cómo fotografiar a tu perro negro (un insospechado misterio fotográfico)*. (2014). <http://pijamasurf.com/2014/07/como-fotografiar-a-tu-perro-negro-un-insospechado-misterio-fotografico/>
- Lete, X. Urrats (1981). *Desbideratuak*. Zarautz, España: E. Itxaropena, S.A.
- Magdalena, P. (2008). *Hutsik*. Donosti, España: Elkar Argitaletxea.
- Magnum Photos (2014). Henri Cartier-Bresson. http://pro.magnumphotos.com/C.aspx?VP3=CMS3&VF=MAGO31_10_VForm&ERID=24KL53ZMYN
- Mayer, B. (2011). *Evgen Bavcar: El deseo de imagen*. https://centrodelaImagen.files.wordpress.com/2010/06/texto-evgen-bavcar_benjamin-mayer1.pdf
- Mier, R. *Certeza de la ceguera*, Revista Fractal, núm. 15, vol. IV, octubre-diciembre, 1999, s.p. <http://www.mxfractal.org/>
http://catarina.udlap.mx/u_dl_a/tales/documentos/lhu/backman_s_cb/capitulo0.pdf
- Osho International Foundation (2003). *El libro de la vida y de la muerte*. Barcelona, España. Editorial Kairos, S.A.
- Peña, N. (2014). *Experimentar la ceguera desde la fotografía*. <http://dspace.uah.es/dspace/handle/10017/21149>


PAUXA

- Pete, E.(2017). *Pete Eckert*. <http://peteeckert.com/>
- Petkovic, V. (2016). *Notes on Blindness: poética, novedosa e inspiradora*.<http://cineuropa.org/nw.aspx?t=newsdetail&l=es&did=304605>
- Plasencia, R. (2016). *Ruben Plasencia*. <http://www.rubenplasencia.com/>
- Plasencia,R. (2014). *En fotos: el tabú de la mirada de los ciegos*.
http://www.bbc.com/mundo/video_fotos/2014/03/140310_galeria_invidentes_ruben_plasencia_jg
- Ramirez, J.(2015) *Clase de historia de la Fotografía en el CiEF. Dedicada a Eugene Atget*.https://www.youtube.com/watch?v=MXC6Ytb_81M.
- Refoyo, M.A.(2016). *Review A Ciegas (Blindess)Distopía, ceguera y deshumanización*.<http://refoworld.blogspot.com.es/2009/04/review-ciegas-blindness.html>
- Resendiz,A.(2008).*Susurros de luz*. <https://www.youtube.com/watch?v=FGDbKUV9sW0>.
- Revista SALUDEMIA(2017). *La vista, el sentido más importante de cuantos poseemos*.(2014) <http://www.saludemia.com/-/noticia-la-vista-el-sentido-mas-importante-de-cuantos-poseemos-?id=425414>
- Ribeiro,A.(2013) *Mirar sin ver: una mirada de cerca a las relaciones entre la fotografía y la ceguera* (tesis doctoral). Universidad Complutense de Madrid, Madrid.
- Saramago, J. (2009) *Ensayo sobre la ceguera*. Madrid, Santillana: Editorial Alfaguara
- Saramago,J.(2010). *Jose Saramago en sus palabras*. Madrid,España: Editorial Alfaguara
- Sindrome del coleccionista blog. Gerardo Nigenda y sus fotos para ciegos.
<https://sindromecoleccionista.blogspot.com.es/2012/03/gerardo-nigenda-y-sus-fotos-para-ciegos.html>
- Sontag, S.(2005) *Sobre la fotografía*.1973. Madrid, España: Santillana Ediciones Generales, S.L.
- Subirana, V. (2013). *Una maestra en Katmandu*. Madrid, España: Santillana Ediciones Generales, S.L.
- Tisseron, S. (2000). *El misterio de la cámara lúcida*. Salamanca , España: Ediciones Universidad de Salamanca.
- Trujillo A.,J.(2015).Gerardo Nigenda: Fotografiar lo (in)visible.
<http://www.yaonic.com/gerardo-nigenda-fotografiar-lo-invisible/>
- Vigano,E,(2001) *Duane Michals: Para que una fotografía sea considerada como arte sólo cuenta el tamaño*. <http://www.elcultural.com/revista/arte/Duane-Michals-Para-que-una-fotografia-sea-considerada-como-arte-solo-cuenta-el-tamano/191>
- Weiner, W.(2013) *Luz negra-Fotógrafos ciegos*. <https://www.youtube.com/watch?v=Xc-XS5VVPj8>

1. ERANSKINA



2.ERANSKINA




3. ERANSKINA




4. ERANSKINA




5.ERANSKINA




6.ERANSKINA



7.ERANSKINA



8.ERANSKINA



9.ERANSKINA

